HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"

2023KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUAK ETA EGOERA-ORRIAK, BERRIKUSPENAREN ETA AZTERKETAREN TXOSTENAREKIN BATERA

AURKIBIDEA

2023KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUEN ETA EGOERA-ORRIEN BERRIKUSPENAREN ETA AZTERKETAREN TXOSTENA 1

1. BERRIKUSI ETA AZTERTUTAKO AURREKONTUKO EGOERA-ORRIAK 8
   1.1 Hernaniko Udala 8
      1.1.1 Aurrekontuaren likidazioa 8
      1.1.2 Aurrekontu-emaitza 9
      1.1.3 Diruzaintzako gerakina 9
   1.2 Ereñotzuko Toki Entitate Txikia 10
      1.2.1 Aurrekontuaren likidazioa 10
      1.2.2 Aurrekontu-emaitza 11
      1.2.3 Diruzaintzako gerakina 11

2. BERRIKUSI ETA AZTERTUTAKO ONDAREKO EGOERA-ORRIAK 12
   2.1 Hernaniko Udala 12
      2.1.1 Balantzea 12
      2.1.2 Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua 13
   2.2 Ereñotzuko Toki Entitate Txikia 14
      2.2.1 Balantzea 14
      2.2.2 Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua 15

3. AURKEZTEKO OINARRIAK 16
   3.1 Sarrera 16
   3.2 Aplikatzekoa den araudia 16

4. OHARRAK ETA GOMENDIOAK 18
   4.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 18
   4.2 ONDARE-KONTABILITATEA 18

5. EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA 19

HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"

2023KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUEN ETA EGOERA-ORRIEN BERRIKUSPENAREN ETA AZTERKETAREN TXOSTENA

HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"
2023KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUEN ETA EGOERA-ORRIEN BERRIKUSPENAREN ETA AZTERKETAREN TXOSTENA

Hernaniko Udaleko Kontu Hartzailetzari:

I. SARRERA

Jasotako enkarguaren baldintzei jarraikiz, erantsitako aurrekontuko eta ondareko egoera-orriak berrikusi eta aztertu ditugu (1. eta 2. atalak), 2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion HERNANIKO UDALAREN (Udala) eta "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA" (Ereñotzu) udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundearen urteko kontuak osatzen dituztenak. Egoera-orri horiek jasotzen dituzte, batetik, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina, eta, bestetik, itxiera-data horretako balantzea eta aipatutako erakundeetako bakoitzaren ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua (kasu honetan, Udalarena bakarrik). Aurrekontuko eta ondareko egoera-orri horiek 2023ko ekitaldiko HERNANIKO UDALAREN kontu orokorrean integratzen dira.

Erakunde horietako alkateak/lehendakariak du urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna. Horiek islatu behar dute erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, ekonomia- eta ondare-emaitzaren eta aurrekontua betearaztearen irudi zehatza, erakunde horiei aplikatzekoa den finantza-informazioaren esparru arauemailearen arabera. Esparru hori honako foru-dekretu honetan ezarritakoa da: *86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena* (4. atala).

Lan hau 2024ko maiatzetik uztailera arte egin dute BETEAN AUDITORÍA SLP sozietateko profesionalek, auditoretzari buruz indarrean dagoen araudiari eta *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuan* (aurrerantzean, *barne-kontrolaren foru-dekretua*) xedatutakoari jarraikiz.

HERNANI Donostialdean dago, Gipuzkoan, eta 20.647 biztanleko zuzenbideko biztanleria dauka 2023ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

II. EGINDAKO LANAREN XEDEA ETA IRISMENA

Adierazitako *barne-kontrolaren foru-dekretuak* ezartzen duen moduan, organo kontu-hartzaileak tokiko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola egikaritzen du *funtzio kontu-hartzailearen* eta *finantza-kontrolaren* bidez.

Oro har, adierazitako *finantza-kontrolak* honako ezaugarri hauek ditu:

- Tokiko sektore publikoko zerbitzuen funtzionamendua ekonomia- eta finantza-alderdian ziurtatzea du xede, haiek araupetzen dituzten araudia eta gidalerroak betetzen dituztela egiaztatzeko.

- Zuzenean gauzatu dezake organo kontu-hartzaileak edo eskuordetutako organoen bidez, edo, bestela, horretarako kontratatutako tokiko erakundeaz beraz kanpoko bitartekoen lankidetzaz baliatuta, betiere haren gainbegiratu eta zuzendaritzapean.

- Modalitate hauek hartzen ditu barnean: *kontrol iraunkorra* eta *auditoretza publikoa*.

Zehazki, modalitate horien artean, *kontrol iraunkorraren* bitartez egiaztatzen da, modu jarraituan, tokiko sektore publikoko ekonomia- eta finantza-jardueraren funtzionamendua bat datorren ordenamendu juridikoarekin eta finantza-kudeaketa egokiaren printzipio orokorrekin, azken xedea baita kudeaketaren ekonomia, finantza, ondare, aurrekontu, kontabilitate, antolaketa eta prozedurari dagozkion alderdiak hobetzea. Horretarako, auditoretza-teknikak aplika daiteke, eta, beste zenbait jarduketaren artean, honako hauek:

- Kontabilitate-erregistroak, kontuak edo egoera-orri finantzarioak edo eragiketa indibidualizatu eta zehatzak aztertzea.

- Funtzio kontu-hartzaileak hartzen ez dituen kudeaketa ekonomikoaren alderdiei aplikatzekoak diren prozedurak eta araudia betetzen direla egiaztatzea.

- Laginketa-tekniken bidez egiaztatzea organo kudeatzaileek erakunde horien kontabilitate-informazioaren euskarri gisa emandako garrantzi ekonomikoko datuek eta informazioak arrazoizko moduan islatzen dutela haien ekonomia- eta finantza-jardueraren ondorio diren eragiketen emaitza.

Kontrol iraunkorreko lanak egiteko behar diren egiaztapenak sistematikoki eta horretarako hautatutako eragiketak edo jarduketak aztertzeko prozeduren aplikazioaren bidez egin behar dira, ebidentzia nahikoa, egokia eta balioduna lortu ahal izateko.

Egiaztapen horiek auditoretza-prozedurak aplikatuz eginez gero, sektore publikoko auditoretzaren arauetan ezarritakoa bete beharko dute.

Horretarako, hau da, *barne-kontrolaren foru-dekretuan* eta *Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan* jasotako barne-kontroleko jarduketak (finantza-kontrola) *kontrol iraunkorreko* modalitatearen bitartez egikaritzeko, Udaleko Kontu Hartzailetzak kontratatu ditu 2023ko aurrekontu-ekitaldiaren amaieran osatutako urteko kontuak eta egoera-orriak berrikusteko

lanak eta *finantza-kontrolarekin* zerikusia duten beste zeregin batzuk gauzatzeko lankidetza-zerbitzuak.

Kontratatutako jarduketetako lehenengoari dagokionez, hots, urteko kontuak eta egoera-orriak berrikusteko lanei, enkargatutako lanaren eginkizuna da egiaztatzea Udalaren (eta, hala badagokio, Ereñotzu erakundearen) urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan islatzen dutela haren ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza, baita haren emaitzena eta ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriarena ere, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearekin eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideekin bat etorriz.

Txosten honetan jarduketa horri buruz lortutako ondorioak azaltzen dira: hau da, Udalean eta, hala badagokio, Ereñotzu erakundean honako hauei buruz egindako lanaren ondorio diren emaitzak:

a) 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egokitasunari buruzko berrikuspena eta azterketa.
b) Ekitaldi horri dagokion ondare-kontabilitatearen berrikuspena eta azterketa.

III. LORTUTAKO EMAITZAK

a) 2023KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOKITASUNARI BURUZ:

Gure lanaren emaitza gisa ondorioztatu ahal izan dugunez, hurrengo 1. puntuan hautemandako egintza eta egoeretan deskribatzen den dokumentazioa lortu eta egiaztatu ahal izan bagenu beharrezkotzat jo zitezkeen doikuntzen ondorioak alde batera utzirik, erantsitako aurrekontuko egoera-orriek (1. atala), HERNANIKO UDALAREN eta "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA" udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundearen 2023ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioen ondorioz zehaztutakoek, egoki aurkezten dute, alderdi esanguratsu guztietan, erakunde horien aurrekontuak betearaztearen emaitzen irudi zehatza, izaera horretako egoera-orriak prestatzeko lanetan aplikatzekoa den finantza-informaziori buruzko esparru arauemailearen arabera (4. atala) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

Hautemandako egintzak eta egoerak

1. Berrikuspenaren eta azterketaren txosten honen datan, ezin izan dugu jaso baieztapena jasotzeko egin genuen eskaeraren erantzuna:

    - Caja Rural de Navarra, Abanca eta Banco Santander erakundeak, Udalak finantza-erakunde horiekin izandako kontu korronteen, aurrezki-kontuen eta eragiketen 2023ko abenduaren 31ko egoerari dagokionez.
    - Udalaren hiru hornitzaile, 2023ko abenduaren 31ko zorraren osaerari eta data horretan amaitutako ekitaldian zehar haiekin egindako eragiketen bolumenari dagokienez.
    - Udalarekin harreman profesionalak izan dituzten lau abokatu, harengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioei edo pasibo kontingenteei dagokienez.
    - Lanbide, Hernaniko Udalari bere egoera-orri finantzarioen kargura 2023ko ekitaldian egiaztatutako ordainketei dagokienez.

Nabarmentzeko moduko beste gertakari batzuk

1. Udalaren sarreren aurrekontuko zuzeneko zergen kapituluan, 2023ko ekitaldian erregistratu da 2022ko ekitaldiari dagokion probintziako eta Estatuko kuotaren ondoriozko ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) kuotaren soberako likidazioa, 16.835 eurokoa, 2022an egindako gutxiegizko zenbatespenaren ondorioz.

2. Era berean, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren analisian detektatu da likidazio-datak eta eskualdatze-data nabarmen desberdinak direla.

3. Udalaren sarreren aurrekontuko "Tasak eta bestelako sarrerak" kapituluko "Ur-hornidura" eta "Estolda-zerbitzuak" kontzeptuetan 2022ko ekitaldiko hirugarren lauhilekoari eta 2023ko ekitaldiko lehen bi lauhilekoei dagozkien sarrerak laburbilduta ageri dira.

4. Era berean, sarreren kapitulu horretan bertan, 2023ko ekitaldian erregistratu da 2022ko ekitaldiko gaikako paper-bilketaren urteko plus aldakorrari dagokion 66.780 euroko sarrera. Eskubide horiek 2023ko ekitaldiko sarreren aurrekontuan kontabilizatu ziren, Ecoembalajes España SA sozietateak likidazio-dekretuaren ondoren egin baitzuen plus horien jakinarazpena.

5. Udalaren sarreren aurrekontuko "Transferentzia arruntak" eta "Kapital-transferentziak" kapituluetan, transferentzia arrunt batzuk (4. kapitulua) edo kapital-transferentzia batzuk (7. kapitulua) behar bezala erregistratu ez direla hauteman da.

6. Bestalde, Udalaren gastuen aurrekontuko "Ondasun eta zerbitzuen erosketak" kapituluan hauteman denez, 2023ko abenduaren 31n erregistratu gabe dago 2023ko ekitaldiko uraren saneamenduaren kanonari dagokion gastua, 31.813 euroko zenbatekoaz. Alderantziz, 2022ko ekitaldiari dagokion zenbatekoari dagokion zenbateko bera erregistratu da.

7. Aurrekontuak aldatzeko espedienteei dagokienez, kreditu-transferentzia baten kasuan programa baten aldakuntza metatuak hasierako aurrekontuaren % 25 gainditzen du eta Alkatetzaren Dekretu bidez onartu da, baina Udalbatzak onartu beharko zukeen.

b) 2023KO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE-KONTABILITATEA:

Gure lanaren emaitza gisa ondorioztatu ahal izan dugunez, hurrengo 1.etik 3.era bitarteko puntuetan hautemandako egintza eta egoeretan deskribatzen den dokumentazioa lortu eta egiaztatu ahal izan bagenu beharrezkotzat jo zitezkeen doikuntzen ondorioak salbuetsita eta hurrengo 4. puntuan deskribatzen direnen ondorioak alde batera utzirik, erantsitako ondareko egoera-orriek (2. atala), HERNANIKO UDALAREN 2023ko aurrekontu-ekitaldiaren amaieran osatutakoek, egoki aurkezten dute, alderdi esanguratsu guztietan, Udalaren 2023ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza, baita data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzena ere, izaera horretako egoera-orriak prestatzeko lanetan aplikatzekoa den finantza-informaziori buruzko esparru arauemailearen arabera (4. atala) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

Hautemandako egintzak eta egoerak

1. *III.a) atalean ("2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egokitasunari buruz")* deskribatutako egintzek ondare-kontabilitatean izan litzaketen ondorioak.

2. Udalaren patronatuak azken urteetako zenbait unetan desegin ondoren, Udalak pixkanaka itzuli dizkio udal-erakundeari erakunde autonomoei atxikitako inbertsioak eta erakundeek beren aurrekontuen kargura egindako inbertsioak.

   Kasu batzuetan, alabaina, adibidez Kirol Patronatuaren kasuan, ez dago jasota Udalak bere garaian, edo geroztik, benetan itzulitako inbertsioak eta hobekuntzak inbentariatu eta baloratu zituenik. Hori dela eta, ezin da jakin zein izan beharko zuketen Patronatua desegitearen ondorioz Udalaren balantzean sartu beharko ziratekeen balioak.

3. Bestalde, ez dugu lortu inbertsio gisa erregistratu diren eta gero gastu gisa birsailkatu diren ondasunen xehetasuna. Horien zenbatekoa 1.601.972 eurokoa izan da guztira.

4. Era berean, hauteman da ez direla erregistratu 2023ko hirugarren lauhilekoari dagozkion ur-hornidura eta estolderiaren sarrerak, 822.507 eurokoak. 2023ko abenduaren 31n, alabaina, 2022ko hirugarren lauhilekoari dagozkionak erregistratu dira, 837.169 euroko zenbatekoaz.

Betean Auditoría, SLP

José Ignacio Miguel Salvador

2024ko uztailaren 10a

HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"

2023KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUAK ETA EGOERA-ORRIAK

1. BERRIKUSI ETA AZTERTUTAKO AURREKONTUKO EGOERA-ORRIAK

1.1 HERNANIKO UDALA

1.1.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA-ORRIA – 2023KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/–**	**Behin betiko aurrekontua**	**Eskubide likidatuak**	**Bilketa likidoa**	**Kobratzeko**	**Betearazte-egoera**
1- Zuzeneko zergak	6.876.300,00	-	6.876.300,00	7.304.598,77	6.729.251,99	575.346,78	428.298,77
2- Zeharkako zergak	250.000,00	-	250.000,00	(1.787.484,61)	(1.805.179,94)	17.695,33	(2.037.484,61)
3- Tasak eta bestelako sarrerak	7.671.100,00	-	7.671.100,00	8.388.842,33	7.384.131,83	1.004.710,50	717.742,33
4- Transferentzia arruntak	18.238.300,00	36.819,00	18.275.119,00	19.077.857,48	18.189.596,78	888.260,70	802.738,48
5- Ondare-sarrerak	88.400,00	-	88.400,00	78.185,63	61.034,64	17.150,99	(10.214,37)
Sarrera arruntak guztira	**33.124.100,00**	**36.819,00**	**33.160.919,00**	**33.061.999,60**	**30.558.835,30**	**2.503.164,30**	**(98.919,40)**
6- Inbertsio errealak	1.000,00	-	1.000,00	374.429,24	374.429,24	-	373.429,24
7- Kapital-transferentziak	-	185.147,31	185.147,31	471.728,00	327.706,07	144.021,93	286.580,69
8- Finantza-aktiboak	10.000,00	14.066.317,87	14.076.317,87	16.502,15	10.592,20	5.909,95	(14.059.815,72)
Kapital-sarrerak guztira	**11.000,00**	**14.251.465,18**	**14.262.465,18**	**862.659,39**	**712.727,51**	**149.931,88**	**(13.399.805,79)**
SARRERAK GUZTIRA	**33.135.100,00**	**14.288.284,18**	**47.423.384,18**	**33.924.658,99**	**31.271.562,81**	**2.653.096,18**	**(13.498.725,19)**

GASTUEN EGOERA-ORRIA – 2023KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/–**	**Behin betiko aurrekontua**	**Obligazio kontabilizatuak**	**Ordainketa likidoak**	**Ordaintzeko**	**Betearazte-egoera**
1- Langile-gastuak	11.742.420,00	264.962,37	12.007.382,37	11.556.850,86	11.553.221,41	3.629,45	450.531,51
2- Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	16.977.550,00	1.432.242,52	18.409.792,52	16.771.760,14	15.103.023,31	1.668.736,83	1.638.032,38
4- Transferentzia arruntak	3.307.099,00	972.545,85	4.279.644,85	3.206.442,24	2.729.394,78	477.047,46	1.073.202,61
5- Kreditu globala eta bestelako gastuak	298.100,00	(245.800,00)	52.300,00	-	-	-	52.300,00
Gastu arruntak guztira	**32.325.169,00**	**2.423.950,74**	**34.749.119,74**	**31.535.053,24**	**29.385.639,50**	**2.149.413,74**	**3.214.066,50**
6- Inbertsio errealak	799.931,00	11.689.831,29	12.489.762,29	4.825.794,05	4.329.505,84	496.288,21	7.663.968,24
7- Kapital-transferentziak	-	168.000,00	168.000,00	-	-	-	168.000,00
8- Finantza-aktiboak	10.000,00	6.502,15	16.502,15	16.502,15	16.502,15	-	-
Kapital-gastuak guztira	**809.931,00**	**11.864.333,44**	**12.674.264,44**	**4.842.296,20**	**4.346.007,99**	**496.288,21**	**7.831.968,24**
GASTUAK GUZTIRA	**33.135.100,00**	**14.288.284,18**	**47.423.384,18**	**36.377.349,44**	**33.731.647,49**	**2.645.701,95**	**11.046.034,74**

- Eurotan -

2023AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA				
Kapitulua	**Hasieran kobratzeko/ ordaintzeko**	**Baliogabetzea**	**Kobrantzak/ Ordainketak**	**Kobratzeko/ ordaintzeko**
Zordunak	3.803.820,30	(189.993,19)	2.514.702,12	1.099.124,99
Hartzekodunak	2.667.032,03	-	2.667.032,03	-
ITXITAKO AURREKONTUAK	**1.136.788,27**	**(189.993,19)**	**(152.329,91)**	**1.099.124,99**

1.1.2 AURREKONTU-EMAITZA

-Eurotan-

Indarreko aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		**(2.452.690,45)**
Eskubide likidatuak	33.924.658,99	
Obligazio kontabilizatuak	36.377.349,44	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:		**(189.993,19)**
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	-	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	189.993,19	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU-EMAITZA		**(2.642.683,64)**
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		**5.783.459,50**
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	5.950.240,90	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbideratzeak	(166.781,40)	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		**3.140.775,86**

1.1.3 DIRUZAINTZAKO GERAKINA

-Eurotan-

1.- Diruzaintzako funts likidoak		**27.609.174,85**
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		**3.844.998,52**
Eskubide kontabilizatuen ondoriozko zordunak	2.653.096,18	
Eskubide kontabilizatuen ondoriozko zordunak: itxitako ekitaldia	1.099.124,99	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	92.777,35	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		**4.291.314,98**
Obligazio kontabilizatuen ondoriozko hartzekodunak	2.645.701,95	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.645.613,03	
4- Aplikatu gabeko partidak		**(4.438,43)**
Aplikatu gabeko kobrantzak	6.427,92	
Aplikatu gabeko ordainketak	1.989,49	
DIRUZAINTZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 – 3 + 4)		**27.158.419,96**
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak		1.370.835,59
DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOA		**25.787.584,37**
Finantzaketa lotuko gastuei lotutako diruzaintzako gerakina		1.968.385,80
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA		**23.819.198,57**

1.2 EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

1.2.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA-ORRIA – 2023KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/–**	**Behin betiko aurrekontua**	**Eskubide likidatuak**	**Bilketa likidoa**	**Kobratzeko**	**Betearazte-egoera**
3- Tasak eta bestelako sarrerak	6.100,00	-	6.100,00	11.912,28	9.782,36	2.129,92	5.812,28
4- Transferentzia arruntak	496.000,00	16.198,53	512.198,53	516.233,47	129.808,25	386.425,22	4.034,94
5- Ondare-sarrerak	1.000,00	-	1.000,00	172,86	172,86	-	(827,14)
Sarrera arruntak guztira	**503.100,00**	**16.198,53**	**519.298,53**	**528.318,61**	**139.763,47**	**388.555,14**	**9.020,08**
8- Finantza-aktiboak	100,00	166.780,25	166.880,25	-	-	-	(166.880,25)
Kapital-sarrerak guztira	**100,00**	**166.780,25**	**166.880,25**	**-**	**-**	**-**	**(166.880,25)**
SARRERAK GUZTIRA	**503.200,00**	**182.978,78**	**686.178,78**	**528.318,61**	**139.763,47**	**388.555,14**	**(157.860,17)**

- Eurotan -

GASTUEN EGOERA-ORRIA – 2023KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/–**	**Behin betiko aurrekontua**	**Obligazio kontabilizatuak**	**Ordainketa likidoak**	**Ordaintzeko**	**Betearazte-egoera**
1- Langile-gastuak	62.200,00	-	62.200,00	35.405,40	35.405,40	-	26.794,60
2- Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	266.350,00	20.352,20	286.702,20	228.613,15	200.644,59	27.968,56	58.089,05
4- Transferentzia arruntak	38.550,00	-	38.550,00	27.630,00	25.800,00	1.830,00	10.920,00
Gastu arruntak guztira	**367.100,00**	**20.352,20**	**387.452,20**	**291.648,55**	**261.849,99**	**29.798,56**	**95.803,65**
6- Inbertsio errealak	136.000,00	162.626,58	298.626,58	184.415,72	184.415,72	-	114.210,86
8- Finantza-aktiboak	100,00	-	100,00	-	-	-	100,00
Kapital-gastuak guztira	**136.100,00**	**162.626,58**	**298.726,58**	**184.415,72**	**184.415,72**	**-**	**114.310,86**
GASTUAK GUZTIRA	**503.200,00**	**182.978,78**	**686.178,78**	**476.064,27**	**446.265,71**	**29.798,56**	**210.114,51**

- Eurotan -

2023AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA				
Kapitulua	**Hasieran kobratzeko/ ordaintzeko**	**Baliogabetzea**	**Kobrantzak/ Ordainketak**	**Kobratzeko/ ordaintzeko**
Zordunak	493.244,41	-	493.162,91	81,50
Hartzekodunak	35.549,46	-	35.549,46	-
ITXITAKO AURREKONTUAK	**457.694,95**	**-**	**457.613,45**	**81,50**

1.2.2 AURREKONTU-EMAITZA

		-Eurotan-
Indarreko aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		**52.254,34**
Eskubide likidatuak	528.318,61	
Obligazio kontabilizatuak	476.064,27	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU-EMAITZA		**52.254,34**
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		**165.730,25**
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	74.660,25	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbideratzeak	91.070,00	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		**217.984,59**

1.2.3 DIRUZAINTZAKO GERAKINA

		-Eurotan-
1.- Diruzaintzako funts likidoak		**627.336,22**
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		**388.636,64**
Eskubide kontabilizatuen ondoriozko zordunak	388.555,14	
Eskubide kontabilizatuen ondoriozko zordunak: itxitako ekitaldia	81,50	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		**39.157,94**
Obligazio kontabilizatuen ondoriozko hartzekodunak	29.798,56	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	9.359,38	
DIRUZAINTZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 – 3)		**976.814,92**
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak		-
DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOA		**976.814,92**
Finantzaketa lotuko gastuei lotutako diruzaintzako gerakina		250.000,00
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA		**726.814,92**

2 BERRIKUSI ETA AZTERTUTAKO ONDAREKO EGOERA-ORRIAK

2.1 HERNANIKO UDALA

2.1.1 BALANTZEA

-Eurotan-

AKTIBOA	2023/12/31	2022/12/31	PASIBOA	2023/12/31	2022/12/31
A) AKTIBO EZ-ARRUNTA	**52.086.495,76**	**51.411.694,37**	**A) ONDARE GARBIA**	**76.937.857,26**	**79.164.437,63**
I) Ibilgetu ukiezina	1.540.816,19	1.673.966,10	I) Ondarea	*31.417.814,59*	*31.417.814,59*
Bestelako ibilgetu ukiezina	*1.540.816,19*	*1.673.966,10*			
			II) Sortutako ondarea	45.278.732,10	47.698.966,22
II) Ibilgetu materiala	46.286.760,30	45.551.865,82	*Aurreko ekitaldietako emaitzak*	*47.699.966,22*	*44.463.734,18*
Lursailak	*4.343.736,51*	*4.238.356,51*	*Ekitaldiko emaitza*	*(2.421.234,12)*	*3.235.232,04*
Eraikuntzak	*30.269.549,29*	*29.995.084,68*			
Azpiegiturak	*8.523.956,66*	*7.963.712,72*	IV) Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak	241.310,57	47.656,82
Ondare historikoko ondasunak	*19.490,06*	*19.490,06*			
Bestelako ibilgetu materiala	*2.304.139,50*	*3.203.929,20*	**B) PASIBO EZ-ARRUNTA**	**960.173,15**	**1.001.935,15**
Uneko ibilgetu materiala eta aurrerakinak	*825.888,28*	*131.292,65*			
III) Higiezinetako inbertsioak	2.166.327,69	2.226.270,87	II) Epe luzerako zorrak	22.866,00	64.628,00
Eraikuntzak	*2.166.327,69*	*2.226.270,87*	*Bestelako zorrak*	*22.866,00*	*64.628,00*
V) Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe luzerako finantza-inbertsioak	2.092.591,58	1.959.591,58			
Zuzenbide publikoko erakundeen ondarean egindako finantza-inbertsioak	*566.059,52*	*566.059,52*	IV) Hartzekodunak eta epe luzean ordaindu beharreko beste zenbait kontu	*937.307,15*	937.307,15
Sozietateen ondarean egindako finantza-inbertsioak	*1.526.532,06*	*1.393.532,06*			
B) AKTIBO ARRUNTA	**30.120.625,46**	**32.863.646,42**	**C) PASIBO ARRUNTA**	**4.309.090,81**	**4.108.968,01**
			II) Epe laburrerako zorrak	943.622,15	843.523,16
II) Izakinak	-	132.000,00	*Bestelako zorrak*	943.622,15	*843.523,16*
Beste erakunde batzuentzat eskuratu edo eraikitako aktiboak	-	*132.000,00*			
III) Zordunak eta epe laburrean kobratu beharreko beste zenbait kontu	2.470.242,47	2.600.330,25	IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste zenbait kontu	3.365.468,66	3.265.444,85
Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak	*2.375.475,63*	*2.532.953,58*	*Kudeaketa-eragiketen ondoriozko hartzekodunak*	*2.183.627,65*	*2.435.344,85*
Kobratzeko bestelako kontuak	*67.666,01*	*67.376,67*	*Ordaintzeko bestelako kontuak*	*436.513,25*	*108.307,67*
Administrazio publikoak	*27.100,83*	-	*Administrazio publikoak*	*745.327,76*	*721.792,33*
V) Epe laburrerako finantza-inbertsioak	41.208,14	35.298,19			
Ondarean egindako finantza-inbertsioak	*35.298,19*	*35.298,19*			
Kredituak eta beste zenbait zor-balore adierazgarri	*5.909,95*	-			
VII) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	27.609.174,85	30.096.017,98			
Diruzaintza	*27.609.174,85*	*30.096.017,98*			
AKTIBOA GUZTIRA	**82.207.121,22**	**84.275.340,79**	**PASIBOA GUZTIRA**	**82.207.121,22**	**84.275.340,79**

2.1.2 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

-Eurotan-

ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOA	2023/12/31	2022/12/31
1. Zerga- eta hirigintza-sarrerak	13.490.905,44	15.204.573,28
a) Zergak	*5.334.402,55*	*7.454.542,99*
b) Tasak	*7.208.806,56*	*7.752.169,15*
d) Hirigintza-sarrerak	*947.696,33*	*(2.138,86)*
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	19.345.434,62	19.304.716,02
a) Ekitaldikoak	*19.345.434,62*	*19.304.716,02*
a.1) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzak	*1.462.276,26*	*1.848.837,38*
a.2) Transferentziak	*17.883.158,36*	*17.455.878,64*
3. Salmentak eta zerbitzugintza	90.219,00	81.543,07
b) Zerbitzugintza	*90.219,00*	*81.543,07*
6. Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	1.017.148,88	909.933,83
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	**33.943.707,94**	**35.500.766,20**
8. Langile-gastuak	(11.576.629,08)	(10.898.380,86)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	*(8.925.712,97)*	*(8.387.597,48)*
b) Gizarte-kargak	*(2.650.916,11)*	*(2.510.783,38)*
9. Emandako dirulaguntzak eta transferentziak	(3.206.442,24)	(3.276.612,91)
11. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(18.358.734,35)	(17.268.956,12)
a) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak	*(18.358.734,35)*	*(17.261.408,58)*
b) Zergak	-	*(7.547,54)*
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(3.250.040,62)	(3.086.841,60)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	**(36.391.846,29)**	**(34.530.791,49)**
I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	**(2.448.138,35)**	**969.974,71**
14. Finantzaz bestelako ibilgetuaren eta salmenta-egoeran dauden aktiboen balio-narriaduraren eta besterentzeen emaitzak	(466,70)	-
b) Bajak edo besterentzeak	*(466,70)*	-
14. Bestelako partida ez-arruntak	46.606,35	62.184,32
a) Sarrerak	*46.606,35*	*62.184,32*
II. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN EMAITZA	**(2.401.998,70)**	**1.032.159,03**
15. Finantza-sarrerak	80.733,45	70.330,04
b) Zor-balore adierazgarrienak, kredituenak eta beste zenbait finantza-inbertsiorenak	*80.733,45*	*70.330,04*
b.2) Bestelakoak	*80.733,45*	*70.330,04*
20. Balio-narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(99.968,87)	2.132.742,97
a) Taldeko erakundeenak, talde anitzekoenak eta elkartuenak	-	*2.423.334,99*
b) Bestelakoak	*(99.968,87)*	*(290.592,02)*
III. FINANTZA-ERAGIKETEN EMAITZA	**(19.235,42)**	**2.203.073,01**
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	**(2.421.234,12)**	**3.235.232,04**
AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA	**(2.421.234,12)**	**3.235.232,04**

2.2 EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

2.2.1 BALANTZEA

-Eurotan-

AKTIBOA	2023/12/31	2022/12/31	PASIBOA	2023/12/31	2022/12/31
A) AKTIBO EZ-ARRUNTA	**1.272.747,62**	**1.321.673,91**	**A) ONDARE GARBIA**	**2.249.562,54**	**2.246.234,49**
II) Ibilgetu materiala	1.272.747,62	1.321.673,91	I) Ondarea	*566.059,52*	*566.059,52*
Lursailak	*43.499,57*	*43.499,57*			
Eraikuntzak	*787.302,36*	*816.935,94*	II) Sortutako ondarea	1.565.796,26	1.558.299,62
Azpiegiturak	*416.051,55*	*432.185,65*	*Aurreko ekitaldietako emaitzak*	*1.558.299,62*	*1.117.280,78*
Bestelako ibilgetu materiala	*25.894,14*	*29.052,75*	*Ekitaldiko emaitza*	*7.496,64*	*441.018,84*
			IV) Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak	117.706,76	121.875,35
			B) PASIBO EZ-ARRUNTA	**1.000,00**	**1.000,00**
			II) Epe luzerako zorrak	1.000,00	1.000,00
			Bestelako zorrak	*1.000,00*	*1.000,00*
B) AKTIBO ARRUNTA	**1.015.972,86**	**966.782,88**	**C) PASIBO ARRUNTA**	**38.157,94**	**41.222,30**
III) Zordunak eta epe laburrean kobratu beharreko beste zenbait kontu	388.636,64	493.244,41	II) Epe laburrerako zorrak	2.750,00	3.815,00
Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak	*388.636,64*	*493.244,41*	*Bestelako zorrak*	2.750,00	*3.815,00*
VII) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	*627.336,22*	*473.538,47*	IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste zenbait kontu	35.407,94	37.407,30
Diruzaintza	*627.336,22*	*473.538,47*	*Kudeaketa-eragiketen ondoriozko hartzekodunak*	*29.798,56*	*33.734,46*
			Administrazio publikoak	*5.609,38*	*3.672,84*
AKTIBOA GUZTIRA	**2.288.720,48**	**2.288.456,79**	**PASIBOA GUZTIRA**	**2.288.720,48**	**2.288.456,79**

2.2.2 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

-Eurotan-

ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOA	2023/12/31	2022/12/31
1. Zerga- eta hirigintza-sarrerak	9.982,36	11.963,41
b) Tasak	*9.982,36*	*11.963,41*
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	520.402,06	807.479,59
a) Ekitaldikoak	*520.402,06*	*807.479,59*
a.1) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzak	*4.168,59*	*4.168,59*
a.2) Transferentziak	*516.233,47*	*803.311,00*
6. Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	2.102,78	2.855,80
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	**532.487,20**	**822.298,80**
8. Langile-gastuak	(35.417,41)	(35.856,12)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	*(25.408,17)*	*(26.932,86)*
b) Gizarte-kargak	*(10.009,24)*	*(8.923,26)*
9. Emandako dirulaguntzak eta transferentziak	(27.630,00)	(35.368,73)
11. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(413.016,86)	(261.812,82)
a) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak	*(413.016,86)*	*(261.812,82)*
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(48.926,29)	(48.242,29)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	**(524.990,56)**	**(381.279,96)**
I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	**7.496,64**	**441.018,84**
II. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN EMAITZA	**7.496,64**	**441.018,84**
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	**7.496,64**	**441.018,84**
AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA	**7.496,64**	**441.018,84**

3. AURKEZTEKO OINARRIAK

3.1 SARRERA

HERNANI Donostialdean dago, Gipuzkoako lurralde historikoan, eta 20.647 biztanleko zuzenbideko biztanleria dauka 2023ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

Aurrekontu-ekitaldiaren amaieran, toki-erakundeek kontu orokorra prestatu behar dute. Horretan, ekonomiaren, finantzaren, ondarearen eta aurrekontuaren arloetako kudeaketa aditzera eman behar dute. Udalerri honi dagokionez, 2023ko ekitaldiari dagokion HERNANIKO UDALAREN kontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. artikuluak Udalari berari eta "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA" (Ereñotzu) udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeari eskatzen dizkien aurrekontuko eta ondareko kontuek eta egoera-orriek osatzen dute.

Erakunde horiei aplikatzekoak diren finantza- eta aurrekontu-informazioaren esparru arauemailea aipatutako foru-arauan bertan eta foru-dekretu honetan ezarritakoa da: 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena.

Ikuskapen-txostena atalean deskribatutako irismenaren arabera, Kontu Orokor horren zati diren erantsitako aurrekontuen egoera-orriak (1. atala) bakarrik dira gure lanaren helburu. Nolanahi ere, irispide horretan ez da sartu Udalaren gastuaren eraginkortasunari buruzko azterketa, ez eta haren kudeaketa-prozedurei buruzkoa ere.

Ikuskatutako aurrekontuko erantsita doazen egoera-orriak erakunde bakoitzaren kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira.

2023ko ekitaldiko kontu orokorra 2024ko maiatzaren 28an egindako bilkuran onartu du Udalbatzak.

3.2 APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

2023ko ekitaldian, Gipuzkoako Toki Sektore Publikoari buruzko Araudiak zuzendu du Udala:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.

- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, 18/2001 Lege Orokorra, abenduaren 12koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzkoa, garatzeko araudia onartzen duena, lege hori toki-erakundeei aplikatzearren.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duena.
- 3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

4. OHARRAK ETA GOMENDIOAK

4.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

III.a) atalean aipatutako gorabeherak kontuan harturik, honako hau gomendatzen dugu:

- Ekitaldi bakoitzeko azken likidazioak (hilekoak, hiru hilean behingoak...), sarreren zein gastuen ikuspuntutik begiratuta, ekitaldia ixteko aldia baino lehen lortzen ahalegintzea, dagokien ekitaldian erregistratu ahal izateko. Ezin bada, ekitaldi bakoitzean dagozkion aldi guztiak erregistratuta daudela ziurtatzea.

- Sarrerak, finantzatzen dituzten gastuen arabera, arrunten (4. kapitulua) eta kapitalekoen (7. kapitulua) artean kontabilizatzeko Udalak erabiltzen dituen irizpideak berrikustea.

- Aurrekontuak kreditu-transferentzien bidez aldatzeko espedienteei dagokienez, programetako aldakuntza metatuak berrikustea eta Udalbatzak onartzea hasierako aurrekontuaren % 25 gainditzen dutenak.

4.2. ONDARE-KONTABILITATEA

III.b) atalean aipatutako gorabeherak kontuan harturik, honako hau gomendatzen dugu:

- Inbentarioko ondasun adierazgarrienen balorazio erregistratuen berrikuspen orokorra egitea, baita Patronatuak desegin izanaren ondorioz Udalari itzuli zaizkion ondasunei dagokienena ere.
- Itzultzeko aukerari buruzko zentzuzko zalantzak daudela uste den unean, ENHEROM komunitate energetikoari egindako ekarpenari dagokion narriadura zuzkitzea.
- Inbertsioetatik gastuetara birsailkatutako elementuen xehetasuna egitea.

5. EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

"Ereñotzuko Toki Entitate Txikia" udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak landa-bideetarako 16.199 euroko kapitaleko dirulaguntza bat jaso du 2023ko ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik. Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak ekitaldiko sarrera gisa erregistratu du zenbatekoa, baina "Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntza" gisa erregistratu beharko zukeen. Beraz, 2023ko abenduaren 31ko balantzearen "Ekitaldiko emaitza" epigrafea 16.199 euro gainetik baloratuta dago; eta "Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak" epigrafea zenbateko berean azpitik baloratuta.